


# Arrasate

P R E S S

1997ko  
abenduak 19  
389. zenb.



# Santamasak 97

**Deba Garaia eta Arrasate**

**beti gogoan dauzkagu.**

**Santamasak gustora igaro,**

**Gabonak ondo pasatu.**

**Zuen zerbitzura**



**ARRASATEKO UDALA**

# ELA eta LABekin ados

Azken egunotan gertakari potoloak izan ditugu eta, tartean, niretzat garrantzi handia duen bat. ELA eta LABen ekimenak nigan piztu duen itxaropena azaldu nahi dut gaurkoan.

Euskal gatazka deitzen denaren eraginez, eta gatazka horri dagokionean, gure gizartean bi jarrera nabari dira: polarizatu eta bestea. Polarizatu erraza da deskribatzen: "Ez dago bitarterik.

Nire alde ez dagoena, nire aurka dago. Eta nire aurkakoen aurka dagoena, nire alde dago". Poloen estrategia honen arabera, gizartea norberaren polora lerratuz lortuko da bestea deusezte eta gatazka bukatzea. Polarizatuak, bereziki, alderdi politikoak eta gatazkaren zuzeneko protagonistak dira.

Eta besteak? Besteak polarizazioa onartzen ez dutenak dira. Batzuetan bataren edo bestearen alde daudenak, eta besteetan bataren eta bestearen alde, edo bien kontra. Gai baten aurrean jarrera hartzer-



Mikel Irizar

## "Gure gizartean bi jarrera nabari dira: polarizatu eta bestea"

koan, euren baitan hausnartzea nahiago dutenak, kontsignak jarraitzea baino. Besteek usaintzen dute polo batek irabazteak ez duela gatazka konponduko, benetako konponbidea elkar onartzetik etorriko dela, etortzekotan.

Bitxia badirudi ere, pertsona berak bi jarrerak har ditzake une ezberdinetan. Adibidez, hauteskundeetan botoa ematen denean, hautatutako alderdiak egindakoa onartzen da, bere

polarizazio maila barne. Baina gero, eguneroko bizitzan bestela jokatzen da eta, datu askoren arabera, besteak euskal gizartearen gehiengo zabala dira. Gara.

Adostasun egarria nabarmena da. Duela pare bat aste, Udaletzeko pleno aretoan izan nintzen euskal presoak euskal kartzeletara ekartearen aldeko ekimenaren bileran. Sekulako poza hartu nuen horrenbeste koloretako pertsona -eta itzala dutenak- han aurkitzean. Harri eta zur geratuko litzateke arrasatear bat baino gehiago hango izenen zerrenda ezagutuko

balu.

Besteen multzoaren izenak bota izan dira, "gehiengo berria" edo "hirugarren esparrua" bezalakoak. Izenarena bigarren mailako kontua da, baina multzo honek oraingoz ez du espresatzeko tresnarik eta behar du. ELKARRIK ez du lortu tresna hori izateko adina indar -agian poloek ez diote utzi-, nahiz eta geratzen ari diren gauza asko ezin diren ulertu bere eragina kontuan hartu gabe. Beraz, besteak, geure gustuko iritziekin bat etortzeko aukera badugu, noski, baina beste ezer egiteko modurik apenas.

Horregatik uste dut hain garrantzizkoa zela ELA eta LABen ekimena. Euskaldun gehienontzat HBko buruen kontrako epaia ez da zuzena, epaia baino zigorra dirudi. Baina zerbait adierazteko, bi aukera bakarrik geneukan, edo greba orokorra edo kontrakoa, gena ala ezer ez. Eta bi sindikatuen ekimenak ezinezkoa lortu zuen: euskaldun gehienek onartzeko eta bultzatzeko moduko erdibidea, hau da, besteak behingoz espresatzeko aukera.

Hain zen garrantzitsua ekimen hau, poloek zapuztu egin dute. Batak komunikabideetan duen indarra erabiliz eta besteak tiro bakar batez. Baina ahalegina ez da ustela izan. Hurrengo batean gauzatuko da. ■

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñatorra kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Marian Porcel, Pabli Montero. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saliña, ASA taldea, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Asilgarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko ilustrazioa:** Jabí Mayor.

## 389. zenbaki honetan

1997ko abenduaren 19an

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Euren ikuspegitik .....	<b>12</b>	30 galderetan .....	<b>28</b>
Inkesta.....	<b>6</b>	Asteko gaia .....	<b>17/19</b>	Azoka plaza .....	<b>31</b>
Euren ikuspuntutik .....	<b>8</b>	Txutxumutxuak.....	<b>22/23</b>	Denborapasak .....	<b>32</b>
Astearen errebasoa.....	<b>9</b>	Zaldibarko futbitoa ..	<b>18/21</b>	Ikusi eta entzun ..	<b>44/45</b>
Orain eta hemen ..	<b>10/11</b>	Kirolak jokoan .....	<b>24</b>	Fotozaharra .....	<b>46</b>

*Ikuspegia*  
**Mikel Irizar**..... **3**

*Euren ikuspegitik*  
**Iratxe Vazquez** .....

*Asteko gaia*  
**Gizka Barandiaran, omenaldia merezi duen arrasaterra**..... **15/17**

*Aurrez aurre*  
**Julian Bereziartua**..... **26/27**

**Santamasak 97**..... **33/43**

# 19

ostirala

■ ZINEA

*Siete años en el Tibet.* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ SARI BANAKETA

Arratsaldeko 7etan Monterronen. AEDk antolatutako Arrasate 97 eta Jokin Zaitegi lehiaketaren sari banaketa.

■ TAILA ERAKUSKETA

Kepa Uribarren arrasatearraren taila erakusketa Harresi aretoan, arratsaldeko 7etan.

■ KONZERTUA  
GAZTETXEAN

*Kashbad* eta *Honako putzua* taldeen kontzertua Arrasateko Gaztetxean, gaueko 9.30etan. A.G.A.K.Ok antolatuta.

# 20

larunbata

■ ZINEA

*Siete años en el Tibet.* Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ SANTAMAS JAIK

Egun osoan zehar IX Santamas xake txapelketa. 10.30etan pilotako finalak. Eguerdiko 12etan eskaparate lehiaketaren sari banaketa. 12etan, *Zirko Tipiak* ikuskizuna Amaia antzokian. Arratsaldeko 5etan, Euskal Liburu eta diska azoka zabalduko da. 7etan Garagartzako San Migel erretaulari buruzko erakusketa Monterronen. Gaueko 11etan *Joselu anaiekin* dantzaldia herriko plazan.

■ GAZTE  
ANDALUZUARREN  
TOPAKETAK

Andaluziar elkarteetako gazteek bilera egingo dute Al-Andalusen, elkarteak nola zuzendu gaiaren inguruan. 11etan bilera. 2.30etan bazkaria. 4.30etan Arantzazura bidaiaria. Gaueko 10etan afaria.

■ IGERIKETA  
TXAPELKETA

Alebin, infantil eta benajaminen txapelketa Musako-

lako kiroldegian, arratsaldeko 4etatik aurrera, Probak bukatuta, txistorra bokadilokak banatuko dira.

■ KIROLDEGIA ITXITA

Musakolako kiroldegia arratsaldez itxita egongo da igeriketa txapelketa dela eta.

■ MUSAKOLAKO BILERA

Musakolako eta Iturripeko kiroldegietako frontoiak, futbol, tenis eta squasheko kantzak alokatzeko interesatuak dauden pertsonak bilera izango dute Musakolako bulegoan, goizeko 11etan.

■ LITERATUR LEHIAKETA

Santamainako alkatetzak antolatutako literatur lehiaketaren sari banaketa, arratsaldeko 6.30etan, Santamainako alkatetzan.

■ GABONETAKO TXISTU  
KONZERTUA

Aretxabaletako Leizarra Musika eskolako txistulariek kontzertua eskainiko dute Kurtzebarri eskolako aretoan, eguerdiko 12.30etan. 11.30etan kalejira.

# 21

igandea

■ ZINEA

*Siete años en el Tibet* Alai Zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ SANTAMAS JAIK

Goizeko 11etan Santamas krosa. Arratsaldeko 7etan erraldoiak, kilikiak eta Incansables txaranga. 7etan, txerriaren aurkezpena Portaloian. Gaueko 11etan, *Gaubela* taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

■ GAZTE ANDALUZIA-  
RREN TOPAKETAK

12tan txikiteoa Arrasaten. 2.30etan bazkaria eta 3.30etan ihardunaldien bukaera.

■ BERTSO SAIOA  
AMAIAN

Bertsolariak: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Jesus Mari Irazu, Angel Mari Peñagarikano eta Jon Sarasua. Gai jartzailea: Joserra Gartzia. Arratsaldeko 7.30etan, Amaia antzokian. Prezioa AEDko bazkideendako 500 pta. eta besteendako 700 pta. AEDk antolatuta.

**SIRIMIRI**

Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42

Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**Memesa**

79 42 22

*Jili Jili*

Martxa eta estilo  
handiko erropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

# 22

## astelehena

■ **ZINEA**

*Siete años en el Tibet.* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ **SANTAMASAK**

Goizeko 9.30etan gaitero eta txistulariekin diana. 10etatik aurrera, fruta, barazki eta gazten lehiaketa eta hegaztien erakusketa azokan. Lau Bide plazan, berriz, ganadu erakusketa eta nakazaritza makineriaren feria. 10.30etan artisauro langintzen erakusketa Jokin Zaitegi plazan. 11.30etan fruta, barazki eta gazten sari banaketa. 12.30etan aizkolari eta harri-jasotzaileen erakusketa. Eguerdiko 1.30etan Lore Gazteak taldearen saioa Herriko plazan. 2.30etan herri bazkaria Musakolako kiroldegian. Arrasaldeko 6etan *Txan Handia* magoaren magia ikuskitzuna. 7etan txerri dantza. 7.30etan Gaizka Barandiarani omenaldia pleno aretoan. 11etan dantzaldia *Trabuko* taldearekin eta 12etan txerri zozketa.

# 23

## asteartea

■ **ZINEA**

*Siete años en el Tibet.* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

# 24

## asteazkena

■ **OLENTZERO EGUNA**

Eguerdiko 12etan txorontzio eta txorontzia. Arrasaldeko 6etan Olentzero.

# 25

## osteguna

■ **ZINEA**

*Hercules.* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.


■ **ZABOR BILKETAREN ORDUTEGIA**

Abenduaren 24an eta 31n etxeetako zaborren bilketa arratsaldeko 2etan hasiko da eta ez gaueko 10etan. Egun horietan zaborra ordu bata eta ordu biak bitartean atera behar da. Ordu aldaketa San Andres, Erguin, Uribarri, Loramendi, Garagartza eta Gesalibarren emango da. Bestalde, hondakin handien bilketa urtarillaren 8an egingo da.

■ **LIBURU ETA DISKO AZOKA**

Abenduaren 20tik 24ra Liburu eta Disko azoka Sebero Altube plazan. AEDk antolatuta.

Abenduaren 20an arratsaldeko 5etan zabalduko da azoka eta gaueko 9ak arte egongo da zabalik. 21ean, 22an eta 23an: goizez 11etatik ordubietara, eta arratsaldez, 5etatik 9etara. Azkenik, 24an, goizez 11etatik ordubietara eta arratsaldez 5etatik 7etara irekiko da.



**ANDONI EGAÑA TXAPELDUNA ARRASATEN IZANGO DA AEDK ANTOLATUTAKO BERTSO JAIALDIAN**

Egungo bertsolari onenatarikoak arituko dira bertso-tan AEDk antolatutako jaialdian. Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Jesus Mari Irazu, Euskadiko azken bertsolari txapelketako partaideak, Arrasatera etorriko dira. Gainera, Jon Sarasua eta Peñagarikanok ere parte hartuko dute. Arrasateko saioa, domekan, arratsaldeko 7.30etan, izango da Amaia antzokian.

Bazkideek 500 pta. ordaindu beharko dute sarrera, eta AEDren bazkide ez direnek 700.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

O  
i  
l  
a

s  
r  
t  
a

1 9

• Gaez: Corcuera. Musakola.

L  
n  
a

a  
r  
u  
b

t  
a  
o

2

• Gaez: Irizar. Erguin.

I  
g  
n  
e

a  
d

2

1

• Gaez: Amezuza. Santamaina.

# Zein da gustokoen duzun txerrikia?




**Jose Antonio Gonzalez**  
(58 urte)  
Langilea

Txerritik dena gustatzen zait baina gustokoenak urdaiazpikoa eta solomoa ditut. Horiek dira txerriki onenak.



**Antonia Rodriguez**  
(29 urte)  
Langilea

Niri txahalkia gustatzen zait gehien, baina txerriaren okela jan behar badut, orduan solomoa.




**Jose Luis Azkoaga**  
(61 urte)  
Jubilatua

Urdaiazpikoa, mortzilak, solomiloa...dena da ona, txerriak izena bakarrik dauka txarra.



**Bittori Intsausti**  
(77 urte)  
Jubilatua

Baserrian egindako odolosteak gustatzen zaizkit. Urdaiazpikoa eta xerrak ere onak dira. Baina ez dut asko jaten, zaharrak gara eta zaindu egin behar dugu.



**Martin Romero**  
(52 urte)  
Langilea

Asko gustatzen zait txerria. Urdaiazpikoa, solomoa eta txorixoak jaten ditut gustoren.



**Eneida Balanzategi**  
(20 urte)  
Ikasle eta langilea

Txerria ez zait asko gustatzen, solomo adobatua bakarrik. Gurago dut behikia.



**Francisco Davila**  
(35 urte)  
Langilea

Burua izan ezik gainontzeko dena jaten dut. Dena aprobetxatzen da. Txorixua ondo dago baina gurago dut odolostea.



**Lucia Olivenza**  
(40 urte)  
Langilea

Ez zait txerria asko gustatzen baina jan, jaten dut. Gehien gustatzen zaidana solomiloa da, oso mamitsua delako.

## OKORETEGI

## KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea ARRASATE Tel.: 77 03 62



# NEREA

Erdiko kale, 28  
ARRASATE  
Tel.: 79 13 43



**Gabon jai  
zoriontsuak!**



**NEGUAZ  
GOZATU!**



**LORAMENDI**  
**INTERSPORT**



- Bidaiatzeko eta janzteko poltsak
- Bisuteria
- Opariak
- Edertasun kabinetea
- Solariuma

## LANCASTER

**Eskaintza bereziak:**  
Eau de Lancaster eta  
aurpegiko kosmetika

*Gabon otarrak  
prestatzen  
dira!*

Kanpandorpea, 4 • Tel.: 79 12 19 ARRASATE

# Eguberri zoriontsua!



1946-1997

50 urteko muga  
gainditu dugu  
zure oinak janzten!

GABON JAI  
ZORIONTSUAK  
IGARO!

# Beatriz oinetakoak

Erdiko kale, 11 • ARRASATE • Tel.: 79 14 33



astea bi hitzetan

■ **Elurra egin zuen asteartean**

Oraindik negua ez den arren, asteartean elurra egin zuen. Eguerdian hasi zen elurra, eta arratsaldera arte gogotik bota zuen.

Elurraren ondorioz, une batzuetan errepideen egoera txarra izan zen.

■ **Ikusle gutxi Abbadiaren Izarrak ikustera**

Oso ikusle gutxi erakarri zuen joan den ostiralean eskaini zen Abbadiaren Izarrak ikuskizunak. Eperra ikastolarendako dirua biltzeko asmoz egin zen ikuskizunera 60 lagun hurbildu ziren.

Abbadiaren Izarrak Itxaro Bordaren testuetan oinarrituta dago, eta AEDren Hegohaxe taldearen ekimenez eskaini zen ikuskizuna Arrasaten.

■ **HBk prentsaurrekoa eman zuen**

Aurtengo aurrekontuei zein emendakin egin dizkieten azaldu zuten HBko zinegotziek joan den ostiralean emandako prentsaurrekoan. Xabier Zubizarretak esan zuenez, gobernu taldearen jarrera itxia izan da. Gainera, proposamenak ez direla batzordeetan aztertu esan zuen. Era berean, informazio falta kezkarria egon dela salatu zuten. Gobernu organoen soldatak igotzeko hirukoak hartu duen erabakia ere gogor kritikatu zuen HBk.

■ **Raúl Rejero parlamentariak salaketa ipini Arrasaten**

Asteartean salaketa jarri zuen Ertzaindegian Raúl Rejero UAko parlamentari izan zenak. Abenduaren 4an bere

kontrako kartelak Arrasaten agertu zirelako jarri du salaketa. Kartelak UAko hiru partaidek jarri zituzten. Euren arabera, Reyerok 30 milioi poltsikoratu zituen eta parlamentuan talde mixtura pasatzean.

Kartelean Reyeroren bila zebiltzala irakur zitekeen, eta ordainsaria 30 milioikoa zela zehazten zen.

■ **Gurutze Gorrikoak jostailuak jasotzen**

Erabilitako jostailuak jaso dituzte Gurutze Gorrikoek Arrasaten. Astelehenetik asteazkenera Abaroan egon ziren jostailuak batzen.

Iaz arrakasta izan zutela-eta, aurten ere jostailu ugari jasotzea espero zuten Gurutze Gorriko bolondresak.

Jostailuak hirugarren mundura eramango dira.



Urtarrilean beste proiektu bat hasteko asmoa dugu, eta 200.000 pezetatik gora beharko ditugu, nahiz eta lagunen artean egin. Zinema, oraindik handi samar gelditzen zaigu.



**JON ANDUEZA**

Euskaldunon Egunkaria  
1997ko abenduaren 11



Arrasatek badu zerbait berezia. Hainbat gauzatan aintzindari izan da eta herri

telebistan baita ere. Kontuan hartzekoa da batetik, borondate politikoa eta jendeak euskararen inguruan lan egiteko duen gogoia bestetik. AED funtsezkoa izan bada, udaletxeak eman dion laguntza ere halakoa izan da. Horrelako ekimen bati aurre egiteko diru asko behar da eta sakrifizio handia egon da. Arrasateko herriak oso harro egon behar du horrelako gauza bat esku artean duelako.



**JON ALDANONDO**

ATBko arduraduna  
Argia. 1.651. zenbakia



**HBk kontzentrazioa egin zuen Seberon**

Astelehen iluntzean hainbat lagunek kontzentrazioa egin zuen Seberon HBk deituta. Mahai Nazionaleko kideen espetxeratzea salatzeke egin zen kontzentrazio isila. Hasiera batean manifestaziorako deia egin bazen ere, astelehenean kontzentrazioa egitea erabaki zen.

**JAKIÖN**

Deba Garaiko Baserriko Barazki eta Fruta Kontserbak  
Conservas de Fruta y Verdura de Caseríos de la Comarca del Alto Deba

JAKION S.L. • San Miguel plaza, 4 etxabea.  
20530 Leintz Gatzaga • Gipuzkoa  
Tfnoa: (943) 71 46 86 • Faxa: (943) 71 46 21



**Honako denda hauetan salgai**

- Landaluze Harategia Iturriotz, 7
- Libe Mendizabal Magdalena Kalea, 27
- Agirre-Etxe Harategia Zurugalde, 33
- Jose Elorza Joan Bengoa, 1
- Salegi Harategia Olarte Kalea, 20

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiralean Setatik Setara.

Tel.: 79 26 99

# Zinegotzien soldatak zergatik igo diren azaldu zuten atzo

EAJ, PSE-EE, EA eta PPren aldeko botoekin atzoko plenoan onartu egin ziren datorren urteko aurrekontuak. EBk eta HBk eurek aurkeztutako emendakinek defendatu zituzten, baina hirukoak ez zituen onartu.

Plenoaren ostean, hirukoia osatzen duten alderdietako zinegotziek prentsaurrekoa eman zuten 98ko aurrekontuen inguruan. Zinegotziek eta alkateak jasotzen duten soldatak zergatik igo diren azaldu zuten besteak beste. Alkateak esan zuenez, zinegotziek ordu asko pasatzen dute Udaletxean, eta lantegiek ordu horiek deskontatzen dizkiete. Lantegiko soldata parekatzeko, zinegotzian lan saria gehitu beharrian aurkitu direla azaldu zuen J.M. Loitik. Era horretan, datorren urtean honako soldata jasoko dute Udaletxetik alderdi eta zinegotziek: alderdi politiko bakoitzak 1.000.000 pta. jasoko ditu urtean; zinegotzi bakoitzak 800.000 pta. urtean eta batzordeko lehendakari bakoitzak 1.200.000 pta.



Atzo onartu ziren 98ko aurrekontuak.

Horretaz gain, gobernu batzordean parte hartzen duen alderdi bakoitzak (une honetan EAJ, EA eta PSE-EE) 2.500.000 pta. jasoko dute urtean. Batetik eta bestetik, Loitik esan zuenez, EAJko zinegotzi batek 2.075.000 pta. jasoko ditu datorren urtean. Kopuru hori eman eta EBkoek egindako salaketak kritikatu zituen alkateak. Bere esanetan, EBko zinegotziek gehiago kobratzen zuen

gobernu taldean zeudenean.

Bestetik, alkatearen soldatak izan duen igoeraren inguruan ere hitz egin zuen. Loitiren berbetan, EUDELEn irizpideei jarraituz egin da igoera hori. Horretaz gain, Udaletxeko lau langilek berak baino gehiago kobratzen dutela eta hori ez dela normala esan zuen. "Logikoena, alkateak gehien kobratzea litzateke" adierazi zuen atzo J.M. Loitik.

## Lezetxiki babesteko neurriak

Lezetxiki babestu nahi dela-eta, aztarnategi prehistorikoaren aldame-neko lurra erosi nahi ditu Udalak.

Lursail horien jabe-tariko batekin akordioa lortu denez, lurasail horiek erostea erabaki zen atzoko plenoan. Beste jabearekin, berriz, ez dago akordiorik, eta ondorioz, lurra expropiatzeko baimena eman zuen plenoak.

Udalak lehenbailehen hasi nahi du Lezetxiki babesten. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak baimen berezi bat eman du, jabeekin akordiorik lortuko ez balitz Udalak lurra okupa ditzan. Atzoko plenoaren onarpenarekin, jabeari deitu, akta jaso eta lurra okupatu egingo dira. Era horretan akordiorik ez bada lortzen, expropiazioko epaitegiak erabakiko du azken prezioa.

Ondo para  
Gabonak!

Lore

L U R R I N D E G I A

- Drenaje linfatikoa Vodder Doktorearen jatorrizko metodoa
- Depilazio elektrikoa Blend eta Flash metodoak
- Masaia terapeutikoa ▪ Kirol masaia ▪ Osteopatia
- Kinesiologia ▪ Solariuma dutxarekin

Olarte kalea, 10 ▪ ARRASATE ▪ Tel: 79 52 50

Urte Berri  
On!



# Ijitoen egoerari irtenbidea bilatu nahi zaio

Gobernu taldeak (EAJk, PSE-EEk eta EAK) ijitoen txabolak botatzeko asmoa jakinarazi duela-eta, udaletxeko Ongizate Batzordea ijitoen egoerari irtenbidea bilatzeko lanean ari da. Nahiz eta gai honekin aspalditik ari den lanean, orain burubelarri heldu diote.

Oraindik erabakirik hartu ez bada ere, litekeena da honako hiru aukeretako bat proposatzea gobernu taldeari. Batetik, kanpin-ekin osatutako kanpamentu bat egitea; bestetik, Udalaren etxe bat ijitoei uztea eta azkenik, Udalak dirulaguntza ematea ijitoek etxebizitza bat alokatu dezaten. Urte hasieran Ongizate Batzordeak proposamena egingo duela espero da, eta gero Gobernu Batzordeak hartuko du azken erabakia.

Jatorriz portugaldarrak diren ijitoak martxoan heldu ziren Arrasatera, eta irailera arte joan-etorrian ibili dira. Irailean bizilekua herrian fin-



Anbulategiaren atzealdean eraiki dituzte txabolak ijitoek.

katu eta txabolak eraiki zituzten Anbulategiaren atzealdean. Bi familia daude txabolatan bizi izaten, eta guztira 10 lagun dira: lau heldu eta sei ume. Umeak San Andres eskolara joaten dira ikasten eta helduek une honetan ez

dute lanik egiten. Ijitoek adierazi dutenez euren nahia ez da Arrasatetik joatea.

Baimen barik eraiki direla-eta, Gobernu Batzordeak joan den astean hartu zuen txabolak botatzeko erabakia.

**“Txabolak botatzen badizkiegu etxe barik geratuko dira”**

Agustin Unzurrunzaga SOS Arrazakeria elkarte-kidearen esanetan, “kontuan izan behar dugu txaboletan pertsona batzuk bizi direla. Beraz, txabolak botatzen badizkiegu etxebizitza barik geratuko dira ijitoak”. Unzurrunzagaren iritziz, txabolak ezin badira eraiki hor bizi izaten daudenei irtenbidea eskaini behar die Udaletxeak. “Beste barik txabolak botatzen badizkiegu, kanporaketa kamuflatu bat izango da”.

SOS Arrazakeriako kideari komenigarria iruditzen zaio ijitoekin hitz egitea zein asmo duten jakiteko.

Era berean, Arrasateko Udalak ijitoei proposamena egitea oso interesgarria izango litzatekeela azpimarratu du.



**LIBURU ETA PAPERDENDA.  
BIDAIARAKO  
LARRUZKO ARTIKULUAK.**

Iturriotz, 4 • ARRASATE  
Tel.: 79 14 84

**LENIZ**  
Garagardotegia

Zorionak eta  
Urte Berri On!

Iturriotz, 8  
Tel.: 79 22 29 ARRASATE



USTEAK USTE

Txabolak

Joan den astean txabolei buruzko bi albiste argitaratu genituen bata bestearen atzean. Goikoak zioen Hirigintza Batzordeak ijitoen txabolak bota nahi dituela. Azpikoak, berriz, Santa Teresa eta Agerreko bizilagunen haserrea jasotzen zuen. Inguruan dituzten txabolek sortzen dituzten arazoak direla-eta, kexu agertu dira bizilagun horiek.

Kasu bietan txabolak hizpide, baina hartu diren erabakiak, desberdinak. Ijitoei dagokienez, txabolak baimen barik eraiki dituztela-eta, behera botatzeko erabakia hartu da. Bigarrenean, berriz, txaboletako jabeekin bildu eta irtenbidea bilatzea pentsatu du Udalak.

Ez naiz batzuen edo besteen alde jarriko, eta ez dut Udalaren erabakia zalantzan jarriko baina gai honen aurrean honako galdera hau datorkit burura: Santa Teresa, Agerre, edo Arrasate inguruko zenbat txabola daude baimen barik eraikita? Ziur nago mordoak direla. Eta hori bakarrik ez. Horrelako zenbat bota ditu Udalak azken urteetan? Baietz eskuetako atzarrekin zenbatu!

-----  
Maria Agirre



# Jolasa oso gauza serioa da

Iratxe Vazquez

Aspaldi bihurtu zen Egu-berria kontsumorako garai aparta.

Janaria, arropa eta, nola ez JOSTAILUAK. Olentzerok zerrenda luuuzeak eta mota guztietakoak jasotzen ditu.

Zuek, gurasoek, jostailuek umeen heziketarako garrantzi handia dutela ondo dakizue, aukera onena egin nahi duzue. Baina nola aukeratu ondo? Zer nolako irizpideak erabili jostailuak erosterakoan? Iragarkiek esaten dituzten irizpideak? Jostailurik politena? Garestiena? Guri gehien gustatzen zaiguna? Ala umeak eskatzen diguna?

Gizakiaren garai guztietan, haurraren adina edozein dela ere, jostailuek umeen behar-erak asetzeko balio izan dute: asmatzeko, sortzeko, bere trebeziak frogatzeko eta amets egiteko, bes-

teak beste.

Arazoa funtzio hauek betetzen dituzten jostailuen aukeraketan dago.

Haurra txunditurik gertatzen da telebistaren bidez jasaten duen bonbardeaketa publizitarioarekin. Haurrak jostailu bakoitza nola erabiltzen den jakin ez arren, marka konkretuekin itsutu egiten da eta ikusten dituen jostailu puntakoenekin harrituta geratzen da. Umeak berak gustokoen duen jostailua eskatzen du; gurasoek, berriz, askotan zalantzaren aurrean,

“ Jostailuak dibertigarria eta haurraren interesa piztu eta mantentzeko gai izan behar du ”

jostailuaren funtzioa eta eragina ezagutu gabe, haurrak eskatutakoari baietz esaten diote. Erosi eta gero etortzen dira arazoak, haurrek nola erabili ez dakitelako edo benetan euren nahia bete ez delako, jostailua ez delako hasieran pentsatzen zuten modukoa.

Haurrak jostailua eskatu ondoren hasten da gurasoen inplikazioa. Gurasoen lana jostailu hori ezagutzekoan da.

Lagungarri izan dezazuen, hona hemen jostailu egoki bat aukeratzeko zenbait aholku, jostailu on baten ezaugarriak, alegia:

Ezer baino lehen, jostailuak dibertigarria eta haurraren interesa piztu eta mantentzeko gai izan behar du. Haurraren hezkuntza mailara egokitua. Erabilera arauak eraman behar ditu; fantasia, imaginazioa eta sormenari eragingo diena. Estetikoa eta ondo egina. Ez du toxikoa ez arriskutsua izan beharko. Erabilera ahalbide ezberdinak eskainiko ditu. Konponterraza izan beharko du eta azkenik, ez du sexuaren arabera ezberdintasunik egingo.

Laburbilduz, jostailu bat ona edo txarra izango da bere ezaugarrien arabera; egokia edo eze-gokia ume bakoitzaren arabera; haren gustu, behar eta gaitasunen arabera.

Iratxe Vazquez  
Txatxilipurdiko kidea da

**Urriarte**  
SPORT

Zorionak eta Urte Berri On!

Olarte, 6 • Tel.: 79 27 78 • ARRASATE

**GOIZ-ALDE**  
GOZARIAK, PLATER KONBINATUAK ETA MERIXENDAK

Iturriotz, 33 • Tel.: 79 11 15



# SAIOA GIMNASIOA

Zuzendari Teknikoa: Iñaki Muñoz  
Kirol Tekniko Gorena • C.N. 3 D.A.N Entrenatzaile Nazionala

## AEROBICa

Goizez eta arratsaldez  
Ikasiak eta hasi berriak

## KARATE

Haurrak (5 eta 9 urte)  
Infantilak (10 eta 13 urte)  
Helduak

## GIMNASIA

3. adineko mantenimendua.  
Goizez eta arratsaldez

## SAUNA

## SOLARIUMA

## MASAIA

- Osteopatia
- Kirol masaia
- Drenaje linfatikoa
- Kiromasaia
- Ziatikak

## MUSKULAZIOA

- Kulturismoa
- Kirol prestakuntza
- Fitness
- Lesioen errehabilitazioa

## SQUASH



Kontzeziño, z/g, tunela • ARRASATE • Tel: 79 97 31

# MULTIOPTICAS

## MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16  
Tel. 76 15 75  
BERGARA

J. Carlos Guerra, 1  
Tel. 79 29 95  
ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp.  
Tel. 88 99 88  
ORDIZIA

## MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2  
Tel. 20 05 22  
EIBAR

## MULTIOPTICAS ERREENTERIA

Pl. de La Esmaltería, 7  
Tel. 51 78 11  
ERREENTERIA

IBILTARIENTZAKO  
PODOMETROA

J.P. : 5.450  
GABONETAKO PREZIO BEHEZA  
**3.575**

J.P. : 14.900  
GABONETAKO PREZIO BEHEZA  
**11.760**

J.P. : 15.150  
GABONETAKO PREZIO BEHEZA  
**12.125**

J.P. : 12.600  
GABONETAKO PREZIO BEHEZA  
**8.900**

J.P. : 13.500  
GABONETAKO PREZIO BEHEZA  
**10.540**

**Uztegabeko opariak**

Aukera ezin hobea

EXISTENTZIAR BUKATU ARTEKO PROMOSIOA

**KILLER LOOP**

ZURE AMETSÉTAKO  
KILLER LOOPAK  
EROS EZAZU  
ETA ERAMAN ESKULARRU  
HAUEK OPARITZAT

**ERREGE  
BAT  
BEZALA  
GELDITU.  
OPARITU  
EGUZKIA.**

**%15eko DTOA.**  
EGUZKITARAKO  
BETAURREKOTAN

GIORGIO ARMANI  
Sofisticated  
by Jilber  
**bolle**  
CARRERA  
EASSUN  
LOOK

INDO  
Christian Dior  
poco rubino  
**STING**  
NINA RICCI  
Yesweibend  
VOGART  
Ray-Ban

Zure "Ray-Ban"ekin  
kutxatila  
beresi bat  
oparizat

*Etxe txukuna  
txoko kuttuna*

*Ehuneki ehun lan*

Oialora, 21  
Tel.: 77 11 48 • ARRASATE

# *Ehune*

*Opari aproposaki*

*Etxe txoko beroan  
kantak abestuta  
alaitasun giroan  
suak babestuta  
igaro Gabonak.*

G A B O N   J A I   Z O R I O N T S U A K !



# ZABALETA

**LYRRINDEGIA / OPARIAK**

Maisu Arano, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 12 32



# Gaizka Barandiaran: bere bizitza eta lanak


Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzi duen azken biografian jasota geratu dira Gaizka Barandiaran arrasatearren bizitza eta lanak. Datorren astelehenean, Santamas egunez, liburuaren aurkezpenaren aitzakiaz, Gaizka Barandiariani omenaldia eskainiko zaio udaletxeko pleno artean. Bizitzan zehar egindako sorkuntza eta ikerketa lan oparoari egingo zaion errekonozimendu publikoa izango da.

Nor da ba Gaizka Barandiaran? Hortxe dago gakoa; oparoa bezain ezezaguna dela gure artean arrasatear honen lana.

**S**eguruen bere anaia Bixente Barandiaran, Euskal Herrian gertzen den azken errementaria, gehienok ezagutuko duzue komunikabide ezberdinetan azaldu eta udalaren aldetik ere omenaldia jaso duelako. Baina Gaizka Barandiaran, ezezaguna da.

Velez de Mendizabalek 1980an izan zuen berarekin lehendabiziko aldiz lan egiteko aukera, Jokin Zaitegiren biziari buruzko informazioa biltzen ari zela. Harrez gero sarriago elkartu izan dira, biak Euskaltzaindiako partaide dira-eta; Akademiako arrasatear bakarrak.

Barandiaranek euskarari eta euskal kulturari bere bizitzan zehar egindako ekarpenekin liruratuta, arrasatear honen bizitza eta lanak liburu batetan biltzea erabaki zuen



Jon Ruiz de Zarate.

Velezek. Liburua udalak argitaratu du eta astelehenean egingo da aurkezpena.

## MENTUTIK INNSBRUCKERA

Gaizka Barandiaran 1916. urte-

an jaio zen Oñatin, eta bi urte zituela familia Legargaineko Mentu baserrira etorri zen bizitzera. Harrez geroztik, Barandiarandarrak "Mentu" gatzizenez dira ezagunak. Hala ere,

1922. urtean aitak Marko Etxeberri baserria eraiki zuen Monterongo kondearen lurren muga, gaur egun Marko Alde izenez ezagutzen den kalean. Ordutik etxe hori da Baran-

diaran sendiaren bizilekua.

Bere bizitzaren zatirik handiena kanpoan pasa du Gaizka Barandiaranek, ikasten hasieran eta lanean gero. 12 urte zituela Durangora joan zen Jesusen Konpainiaren ikastetxean batxilergoa ikastera. Bertan pasa zituen lau urteetan euskal konzientzia eta euskal dantzatarako zaletasuna piztu zitzaizkion. Batxilergoa amaituta, Belgikako Tournai-ra abiatu zen Jesusen Lagundiaren bidetara jarraitu asmoz. 1934. urtean botoak egin eta 1947an apaiztu zen. Filosofia, teologia eta magisteritza ikasketak egin zituen Belgika, Durango, Oña eta Xabierren. Bere ikasketetan aurrera egiteko euskara, gaztelera, frantsesa, ingelesa, alemaniera, heberkera, grekera, latina, errusiera eta katalanera ikasi zituen.

Ikasketak amaituta, Tuteran hamabost urte pasa zituen Gaizkak filosofia irakasten. 1964an Alemaniako Mainz eta Innsbruck-era joan zen Israeli buruzko ikerketak aurrera eramateko. Alemanian hiru urte igaro ondoren betiko itzuli zen Gaizka Barandiaran Euskal Herrira. 1992. urtean jubilatu zen arte Donostian aritu zen irakasle Jesusen Lagundiaren San Ignacio ikastetxean. Gaur egun ere, 81 urte dituela, hantxe bizi da, bere idazlanetan murgilduta.

Velez de Mendizabalen liburuak Gaizka Barandiaranen bizitza jaso du, eta bide batez, Barandiaranen mutiko garaietako pertsonaia, bizimodu eta usadioak ezagutzeko aukera eskaintzen du. "Nire haurtzaroko Arrasate" liburuan 1950eko hamarkadako berri jaso bazuen, oraingoan 1920-30 hamarkadetako bizimodua isladatu du.

### FOLKLOREAREN IKERLARIA

Gaizka Barandiaran idazle eta ikerlari oparoa izan da. Euskarari egin dion ekarpenik handienetakoa Homeroren "Ili-



Marko-Etxeberri baserria, 1922. urteaz geroztik Barandiarandarren bizilekua.

da"ren itzulpena izan da, 1954an "Iliasena" izenburuz argitaratua.

Filosofiaz ere idatzi du. Aristoteles, Nietzsche eta Heidegger existentsialista zituen gogoko. Aristotelen "Peri Hermenías" en euskarazko itzulpena argitaratu gabe dauka oraindik. Bestalde, euskaltzale izanik, hizkuntzalaritza lanik ere badu.

Hala ere, euskal kulturari egin dion ekarpenik balioetsuena euskal dantzen inguruko ikerlana izan da. Bere garai-ko euskal folkloreak ikerle garrantzitsuena izan dela esateko batere zalantzarik ez dauka Velez de Mendizabalek. Hainbeste bidaiatu izanak tokian-tokiko azterketa folklorikoa egin eta elkarren artean osatzeko aukera eman dio. Bere obran makina bat dira euskal dantza eta folkloreak gainera izenburuak, bai liburuak eta bai artikulak. Guztien artean "Danzas de Euskarri" izeneko lau tomoko bilduma nabarmendu behar

da. Barandiaranen lana nazioartean da ezaguna eta errespetatua. International Folk Music Council elkarteko kide den aldetik, atzerriko hainbat argitalpenetan eman du euskal folkloreak berri.

Izutueta koreografoaren zaletu handia da Gaizka Barandiaran, eta Euskal Dantzaren Ikastetxearen beharra aldarri-

katzen du aukera duen guztietan. Gure folkloreak nortasun sakona zaintzea beharrezkoa da bere iritziz. "Gure tradizio koreografikoari eutsi behar diogu, desagertzeko zorian egon daitezkeen dantzak zainduz, Iztueta garaitik asko galdu dira eta".

Patxi Montero

*"Gaizka Barandiaran, adiskideaz gain, maisua izan da niretzat. Neurri handi batean, nik egindako lanak eta oraindik prestatzen ari naizenak ere, Gaizkarekin zordun dira eta izango"*

Jose Inazio Ansorena (Txistularia)

*"Euskal dantzen munduan goi mailako aditua da eta nazioarteko folkloreak oso estimatua"*

Patxi Altuna (Euskaltzaina)



## GAIZKA BARANDIARAN

## “Aberria hanketatik sartzen da”

- Zer iruditzen zaizu zuri omenaldia egitea?

- Ez nuen uste hainbesterako izango zenik, baina oso pozik jasokodut. Batez ere gure mendietan bizia eman zuten nire eskola lagunak izango ditut gogoan, euren oroitzapenak eman dit eta lan hau egiteko indarra.

Ondo dago gure herriaren alde isilpeko lana egiten dutenei esker ona adieraztea; ez niri bakarrik, baita beste guztiei ere. Herri batek hori behar du, etxean behintzat nabarmentzea.

- Zer geratzen zaizu Arrasatearretik?

- Jaiotzez Oñatiarra naiz eta gehienbat kanpoan egon izan naiz. Arrasateko euskaran zerbait idatzi dut, baina beste ezer baino lehen euskaldun sentitzen naiz.

Arrasatek orain unitbertsitate edukitzea gauza handia da. Arizmendiarretak eta bere taldeak egindako lana eredu izan da niretzat; halako gauzek eman didate aurrera egi-

teko indarra, gauzak alde batera utzi eta opor egunetan ere lan egiteko.

- Zenbateko garrantzia ematen diozu zuk dantzari?

- Dantza gure kulturaren zati bat da. Aberria hanketatik sartzen da, herria maitatzeko bidea ematen du. Gainera, gure dantzak oso politikak dira, Iparraldekoak batez ere. Folklore a kulturaz guztietan iraunarazten da, ez dugu hiltzen utzi behar.

- Zuk idatzitakoetik, zeinekin geratu zara gustoren?

- Dantzak eskoletan zabaltzeko egindako lana dut oso gogoan. Bestela, Aristotelen lanarekin eta “Gauzaki, izaki, Gizaki” filosofia esistentzialistaren gaineko ikerlanarekin nago gustora.

Nire ustez ipuinak sortu eta herriari eskaintzea da positiboa. Euskarari eusteko beharrezkoak dira.


- Zer geratzen zaizu

oraindik idazteko?

- Innsbrucken hasi eta Loiolan amaitu nuen lanaren zati bat orain argitaratuko da: “Ezker-eskuma, Israelen kultur oinarria”. Herrien pentsakerak beti erakarri izan nau eta, batez ere, Israelgo sinbologiak. Hasiera batetan nire teologia tesia izan behar zuen honek. Lan luzea da, laupabost liburu betetzeko, eta orain lehenbiziko biak argitaratuko dira.

Bestalde, Aristotelen logikaren oinarria den “Peri Hermenéias” ari naiz itzultzen eta beste lan bat oso aurreratuta daukat: “Harria eta egurra”. Mitologiaren inguruko elementu asko biltzen dituen, lan hau amaitu egin nahi nuke. Aintzina metafisika da mitologia. Adibidez, kolore gorria beti dago gure artean gaiztotasunari lotuta, ekialdeko herrietan bezala.

Inauterien gaineko lanen bat ere egin nahi nuke, baina ez daukat astirik. Proiektu asko daukat baina denbora gutxi.



## J. M. Velez de Mendizabal liburuaren egilea

“Gaizka Barandiaran. Bere bizitza eta lanak” idazle arrasateararen hamabigarren liburua da, eta Velez de Mendizabalen esanetan, gehien kostatu zaion liburua, zuzenketa eta moldaketa ugari egin behar izan duelako.

Bere bibliografia aztertuta, narrazio lanak eta gertuko historiaren lekukotasun eta biografiak tartekatzen dira. Hauek dira Velez de Mendizabalek argitaratu dituenak:

- 1979 *Seber Altube* (biografia)
- 1981 *Jokin Zaitegi* (biografia)
- 1983 *Pedro Inazio Barrutia*
- 1984 *Zeuzara Carmen* (ipuinak)
- Lainocean kantari* (arabari buruzko artikuluak)
- 1986 *Amu arantza* (ikerketak)
- 1987 *Gure aitaren etxea* (Chillidaren obraren gainean)
- 1992 *Jehuda* (elaberria)
- 1996 *Nire haurtzaroko Arrasate* (historia-lekukotasunak)
- Moskuko gereziak* (elaberria)
- Gerardo López de Gereñu* (biografia)
- 1997 *Gaizka Barandiaran. Bere bizitza eta lanak* (biografia)

“Gaizkak Euskal Herriari dion maitasuna zaila da gainontzeko pertsonengan aurkitzen. Euskal Dantzarien Biltzarrari eskerrak eman beharrean nago, FOLKLORE hutsa baino gauza garrantzitsuagoak erakutsi dizkidan Gaizka ezagutzeko aukera eman didalako.”

**Iñaki Mugerza** (Euskal Dantzarien Biltzarreko lehendakari ohia)

Jose Mari Velez de Mendizabalek bi lan ditu egun eskuartean: laster argia ikus dezakeen elaberri bat, eta 1920-30 hamarkadetakoa bizimodua azalduko duen bilduma berria, momentuz biltze fasean dagoena.

## Laburrak

### ■ ISKANBILA ZALDIBARREN

Totem eta Aurrera Bolie taldeen arteko partiduan arazoak egon ziren. Jokaldi batean Aurrera Bolie taldeko Alkorta jokalaria falta gogorra egin zion Totemeko Ugarteri. Ugarterek, lurrean zegoenean, ostikoa eman zion Alkortari eta jaiki zenean belarrondokoa. Antolatzaileek neurriak hartu dituzte. Totemeko Ugarte jokalaria ezingu ditu hurrengo lau partiduak jokatu, ezta Alkortak ere hurrengo biak. Gainera, talde biei abisua eman diete.

### ■ PARTIDU ONENAK

Aste bukaera honetan jokatuko diren neurketetatik bost azpimarratuko ditugu. Zapatuan, goizeko 9etan, Aldibi eta Txeyenex izango dira lehian. Arratsaldeko 6etan, Irati STS eta DA Iriztu taldeen arteko norgehiagokak ere ikusteko modukoa ematen du. Iturripen An, 12etan, Sokoakoak eta Nuevo Tabernak neurtuko dituzte indarrak eta 4etan, Naranja Mekanikaren etsaia Totem izango da. Domekari dagokionez, partidu onena, itxuraz beintzat, Los Heredia eta AT Celayak jokatuko dutena izan daiteke.



**1** 1. ihardunaldi honekin, Zaldibar txapelketako jokalariek agur esango diote 97. urteari. Urtarri-lean, berriro lehen fasearekin jarraitu behar. 10-11 aste bukaeran 12. ihardunaldia jokatuko da eta hortik aurrera bost baino ez dira faltako fase hori bukatzeko.

## Urteko azken ihardunaldia



## BAZTER-ALDE J A T E T X E A

**Denboraldiko platerak, giro onenean**

Galartza auzoa • *ARETXABALETA*  
Tel.: (943) 79 24 58



**Centro de Especialidades  
Odontológicas de Guipúzcoa, S.L.**

**HAGIN KLINIKA** • Ibersalud-ekin hitzartuta  
Haur eta helduendako odontologia • Ortodontzia • Endodontzia  
Peridontzia • Zirugia • Implanteak

Iturriotz, 7 behea ARRASATE • Tel.: 79 73 88  
Simon Arrieta plaza, 3-2.B • BERGARA • Tel.: 76 38 54  
Soraluze, 1-1.ezk. ZUMARRAGA • Tel.: 72 46 47

## ZABALA oinetakoak

*Zorionak eta Urte  
Berri On!*


**Erdiko kale, 18  
Tel.: 79 14 27**

**ZUK NAHI  
Taberna  
Pintxo goxoak  
giro onenean!**

**Erdiko kale ARRASATE  
Tel.: 79 79 26**

# ALTUNA LURRINDEGIA

Maalako Errabala, 19 • ARRASATE  
Tel.: 79 14 23



Gabon hauetan  
Harley lurrina  
erosteagatik  
Harley-Davidson  
gerrikoa  
oparituko  
dizugu. Zatoz!



**JAPAN**

*Olaya's*

MANDARINA DUCK



LUIS ESTEVE



GILABERT

RONCATO VALIGERIA

# Spek Denda



*Gabon  
zoriontuak!*

Iturriotz, 19 Herriko Plaza  
ARRASATE

**OPEL**



**HATOR  
HATOR  
MUTIL  
ETXERA...**

**Ondo ibili  
jaixetan!**

Araba Etorbidea, 3 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE

Tel.: 79 05 86

**TAKOLO AUTOAK**

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	10	9	1	0	66	22	<b>19</b>
Nuevo taberna	10	7	1	2	58	31	<b>15</b>
Branka Taberna	10	7	1	2	38	26	<b>15</b>
Sokoakoak	10	7	1	2	67	26	<b>15</b>
AC Surcos	10	7	0	3	49	29	<b>14</b>
Pipwhis	10	6	1	3	43	33	<b>13</b>
KKjauri	10	6	1	3	31	22	<b>13</b>
Jotakabau	10	5	2	3	23	18	<b>12</b>
tamagotxi	10	6	0	4	32	30	<b>12</b>
Ke Oxtias	10	4	3	3	40	28	<b>11</b>
Garaje Oscar	10	5	1	4	45	32	<b>11</b>
Leya	10	3	3	4	41	40	<b>9</b>
Cartonajes Igamo	10	2	2	6	20	37	<b>6</b>
Ganbelas	10	2	1	7	24	31	<b>5</b>
Potosorri	10	1	3	6	23	42	<b>5</b>
Babajana Sexy	10	1	2	7	22	49	<b>4</b>
Onaniereng	10	1	1	8	29	54	<b>3</b>
Nacex. S	10	0	0	10	18	124	<b>0</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Koka Junior	10	8	2	0	70	25	<b>18</b>
Naranja Mekanika	10	9	0	1	49	28	<b>18</b>
Estrella Taberna	10	8	0	2	62	32	<b>16</b>
Aldibi	10	6	2	2	57	30	<b>14</b>
AT Celaya	10	6	1	3	46	32	<b>13</b>
Totem	10	6	1	3	50	16	<b>13</b>
Lorategi	10	6	0	4	61	27	<b>12</b>
Aurrera Bolie	10	5	1	4	44	42	<b>11</b>
Los Heredia	10	4	2	4	30	27	<b>10</b>
Insert Coin	10	4	1	5	33	44	<b>9</b>
Txeyenex	10	3	2	5	40	39	<b>8</b>
Borrock Roll	10	3	2	5	31	37	<b>8</b>
Aldapa taberna	10	4	0	6	40	54	<b>8</b>
Kamasutra	10	2	4	4	33	42	<b>8</b>
Etxe Mobil	10	2	1	7	23	61	<b>5</b>
Makai	10	2	0	8	28	84	<b>4</b>
Iluna taberna	10	1	1	8	22	54	<b>3</b>
Elisabeth	10	1	0	9	21	66	<b>2</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	10	8	2	0	45	20	<b>18</b>
Irati STS	10	7	1	2	53	32	<b>15</b>
Betrayer	10	6	2	2	43	25	<b>14</b>
DA Iriztu	10	5	4	1	48	39	<b>14</b>
Fraguel gol	10	6	2	2	42	31	<b>14</b>
Jako al rey	10	6	1	3	44	34	<b>13</b>
Lautherbrunen	10	5	2	3	44	39	<b>12</b>
Jay Holigans	10	6	0	4	41	38	<b>12</b>
Zotz	10	5	1	4	32	25	<b>11</b>
Pepelus	10	5	0	5	40	37	<b>10</b>
Bukanak	10	3	2	5	45	53	<b>8</b>
Rotor de bolbo.	10	3	1	6	35	27	<b>7</b>
DKB	10	3	0	7	33	45	<b>6</b>
Komando alparg.	10	2	2	6	29	46	<b>6</b>
Arogoi taberna	10	3	0	7	32	49	<b>6</b>
Ainarexia	10	2	1	7	36	52	<b>5</b>
Sobred. de Claro	10	2	1	7	29	56	<b>5</b>
Epeh	10	2	0	8	23	36	<b>4</b>

## Hurrengo partiduak

### Larunbata, 20

Zaldibar	
8.50	Aldibi - Txeyenex
10.00	Rotor de Bolbog. - Orlando Piratas
11.00	Jotakabau - KKjauri
12.00	Borrock Roll - Kamasutra
13.00	Betrayer - Jako al rey
14.00	Makai - Lorategi
15.00	Tamagotxi - Cartonajes Igamo
16.00	Etxe Mobil - Insert Coin
17.00	Aurrera Bolie - Iluna Taberna
18.00	Irati STS - DA Iriztu
19.00	Pepelus - Sobredosis de Claro
Iturripe A	
11.00	Leya - Potosorri
12.00	Sokoakoak - Nuevo taberna
13.00	Fraguel Gol - DKB
14.00	Estrella taberna - Elisabeth
15.00	Ke Oxtias - Nacex.S
16.00	Naranja Mekanika - Totem
Iturripe B	
13.00	Babajana Sexy - Branka taberna
14.00	Aldapa taberna - Koka Juniors
15.00	onaniereng - Garaje Oscar
16.00	Argi Ibili - Pipwhis
Igandea 21	
Zaldibar	
9.50	Komando alpargat - Ainarexia
11.00	Ganbelas - AC Surcos
12.00	Los Heredia - AT Celaya
13.00	Jey Holigans - Zotz



**Aldibi**

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia  
Tel.: 71 20 02

## Emaitzak

### A taldea

Kre oxtias 5 - Ganbelas 3  
Jotakabau 3 - Pipwhis 3  
Sokoakoak 4 - Tamagotxi 1  
Babajana sexy 2 - Potosorri 2  
Onaniereng 2 - Branka Taberna 5  
Argi Ibili 4 - Leya 4  
Ac Surcos 0 - KKjauri 3  
Nacex.S 2 - Garaje Oscar 16  
Cartonajes Igamo 3 - Nuevo taberna 5

### B taldea

Pepelus 6 - Rotor de Bolbogrado 1  
Jey Holigans 7 - Jako al rey 4  
Komando alpargat 1 - Arogoi taberna 0  
Irati STS 5 - DKB 1  
Epeh 0 - DA Iriztu 1  
Betrayer 7 - FRaguel Gol 3  
Orlando Piratas 5 - Zotz 2  
Sobredosis de CLARO 3 - Bukanak 9  
Lautherbrunen 8 - Ainarexia 4

### D taldea

Estrella Taberna 23 - Makai 5  
Aurrera Bolie 3 - Totem 7  
Aldapa taberna 4 - Aldibi 6  
Etxe Mobil 3 - AT Celaya 9  
Borrock Roll 3 - Insert Coin 5  
Naranja Mekanika 4 - Los Heredia 2  
Lorategi 6 - Iluna Taberna 2  
Elisabeth 2 - Kamasutra 7  
Txeyenex 4 - Koka Juniors 5

Aitor Lopez Rekarte Txapelketa

## Aitor Lopez Rekarte eta Agustin Aranzabal Arrasatera etorriko dira

Bomba taldearen eskutik, gaurtik asteazkenerara arte, Aitor Lopez Rekarte txapelketa jokatuko da Atxabalpen. Ikastetxeetako umeei dago zuzenduta txapelketa eta aurrez aurre 7 jokalariko taldeak egongo dira. Neurketak goizeko 9etatik 12ak bitartean jokatuko dituzte Atxabalpeko anexoan. Santamas egunean berriz, ez da partidurik izango. Zortzi talde arituko dira Aitor Lopez Rekarte txapelketan.




Asteazkenean, finalaren ondoren, sari banaketa egingo da eguerdiko 12.30etan; bertan Aitor Lopez Rekarte eta Agustin Aranzabal Realeko jokalariek izango dira. Sariak lehenengo lau talde onenek jasoko dituzte. Txapeldunari saria Aitorrek emango dio. Txapeldun ordeari, trofeo Bomba taldeak. Hirugarren saria Arrasate Kirolak dendak babesten du, eta laugarrena Mondra Futbol elkarteak. Ekintza guztiak bukatuta luntxa izango dute parte hartzaileek.



## NATURAREKIN HARREMANETAN

La Merced ikastetxeko 5. mailako neska-mutilek, hiru egunetako egonaldia egin zuten Udalako ingurugiro eskolan bertako ekosiste-

ma aztertzeko. Ikusten duzuenez, Besaidera ere igo zuten Iñurategitarren antzera. Hori da mendizaletasuna!



## HEMEN HOTZAK AKABETAN

eta Bittor Guridi eta bere lagunak eguzkia hartzen Machu Picchun... Dena den, esan beharra dago gutaz gogoratu eta agur bero bat bidali digula. Argazkian Claudio argentinarra eta Roberto italiarra ditu alboetan. Argazkilaria Muni da, Costa Rica-koa, eta bere inguruan, ikusten ez ditugun beste taldekideak daude: Mitch australiarra, Eva alemaniarra eta Hilda eta Sandra suizarrak. Bidaia ederra egin dute lagun hauek Inken bideari jarraituz.

## ARKUPE JOMA IRABAZLE

Erguineko Futbito Txapelketako finalak joan den domekan jokatu ziren. Guztira, maila desberdinetako 27 talde. Aurrebenjaminetan-txapelketako txikienak- Arkupe Jomak 3 eta 2 irabazi zion Arkauz taldeari. Futbol talde handiek egiten duten bezala, Arkupe Jomakoek ere argazki ofiziala atera zuten historiarako.




## ESKIÑA taberna

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!  
Olarte, 25 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 20 20

## GEU BAKARRIK

Kinta berekoak dira emakume hauek. Orain hamar urte, 50 urte bete zituztenean, adin bereko gizonen ospakizun handi bat egiteko proposamena egin balia gizonak ez ziren ani-

matu. Aurtengoan, 60 urte bete dutela-eta, gizonak ahaztu eta sekulako festa egin zuten. Meza San Frantziskon eta bazkaria Batzokian. Zorionak guztioi!



## HYDUM HERICIUM

Herinaceum da naturaren fenomeno honen izen zientifikoa. Herrixan, hori bai, "perretxiko ikaragarrixe" izenez definitu daiteke. Tomas

Zubillagak aurkitu zuen joan den zapatuan Anbotoste aldean. Bost kilo ingurukoa, ez da oso normala perretxiku mota honek horrelako tamai-

na hartzea. Jatekoa denez, afaria prestatu ala lehortzen utzi, zalantzan dabil gure Tomas. Lagunek afariaren alde egingo dute, bai horixe!

**Rent a Car**  
Alkilerreko autoak:  
Twingo, Clio, Mégane,  
Laguna, Espace...

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

**MECA**

Karateka

## ISIDOR UGARTE

### *Euskadiko txapelketa poltsikoan eta Estatukoa airean*

— **Berriro Euskadiko txapeldun eta zure herrian?**

— 70 kilotik beherakoetan lehen postua eskuratu nuen eta oso pozik nago; batez ere, Euskadiko txapelketa Arrasaten irabazi dudalako. Herrian zure lagun eta familiakoen artean irabaztea ez da samurra izaten, eta behin lortuta, hartzen den poza izugarria da. Hala ere, esan behar dut aurreko urteetan ere Euskadiko txapelduna izan naizela.

— **Finalera heltzeko zenbat borrokaldi izan zenituen?**

— Lau, eta finalarekin bost. Zailena finala izan arren, besteetan egindakoarekin gustora gelditu nintzen.

— **Maila ona egon zen?**


— Bai, oso ona. Dela dela, maila onena Araban dago, gero Bizkaian eta azkenik Gipuzkoan. Azken urteetan Gipuzkoako maila asko igo da. Nik Arabako Ying-Yang eskolan entrenatzen dut eta oso gustora nabil.

— **Estatuko txapelketan zer espero duzu?**

— Karate maila onena Estatuan eta Frantzia dago. Horrek esan nahi du Estatuko txapelketan zerbait egitea oso zaila dela. Hala ere, ilusio eta itxaropen handiarekin joango naiz.

— **Hemendik aurrera zer?**

— Magisteritza bukatu dut eta Oñatiko Gimnasio batean karateko klaseak ematen ari naiz. Hemendik aurrera nire asmoa txapelketetan parte hartzen jarraitzea da eta, era berean, irakaskerian lanetan murgiltzea.



## ESKUBALOIA Urteko azken neurketa

Arrasate eskubaloi taldeak Portugaletarren bisita izango du zapatuan, hilak 20, arratsaldeko 4.30etan Iturripen. Urtea bukatzeko, Herreroen mutilek irabazteko moduko aurkaria izango dute. Arrasateko taldeak Velasco eta Franen bajak izango ditu.

## SASKIBALOIA Ekintza ugari Iturripen

Arrasate saskibaloi taldeak Atletico San Sebastian taldearen kontra neurtuko ditu indarrak zapatuan, hilak 20, arratsaldeko 6etan Iturripen. Neurketa horretarako saskibaloi-koek hainbat ekintza antolatuko dute: Lizarralde kirol denak oparitutako mendiko bizikleta bat zozketatuko dute. Horretaz gain, taldearen anagrama duten kamisetak egongo dira salgai, eta nobedade handiena taldearen himoaren estreinaldia izango da. Mikel Leibarrek egindako himnoa lehenengoa aldiz entzungo da Iturripen.

## FUTBOLA Idurre aurre selekziara

Mondrako emakumezko taldeko Idurre Amozarrain jokalariek Donostian egin ziren aurreseleksioko probetan hartu zuen parte atzo. Idurrek oraindik ezer ez badaki ere, selekzioan aritzeko aukera izan dezake. Bestalde, emakumezko taldekoek Elgoibar izango dute arerio domekan arratsaldeko 4.15etan. Prefrenteko Mondraren aurkaria, berriz, Zestoa izango da, zapatuan, arratsaldeko 3.30etan, Zestean.

## ATLETISMOA Jonathan Perez bikain

Arrasate Kirolak atletiko taldekoak selekzioen arteko probetan izan ziren Anoetan zapatuan. Orokorrean arrasatearren lana bikaina izan bazen ere, Jonathan Perezek egindakoa aipatu beharrekoa da. Pertika jaurtiketan 16 urteko gazte honek marka berri bat ezarri zuen: 3 metro eta 50 zentimetro. Aurreko marka 3 metro eta 15 zentimetro zen. Jonathanek urte bete bakarrik darma pertikarekin eta bere bilakaera izugarria izan da. Orain, Perezen helburua Estatuko txapelketara joateko gutxieneko distantzia lortzea da: 3 metro eta 80 zentimetro.

## RUGBYA Lagun arteko partidua

Arrasate Kirolak Rugby taldeak ez du denboraldiko partidurik izango; bai ordea lagun artekoa. Zapatuan, hilaren 20an, Atletico San Sebastian taldea izango dute aurrean Donostian.

## KARATEA Urrea eta brontzea

Domekan Arrasaten jokatu zen Euskadiko karate txapelketan herriko karatekek emaitza onak lortu zituzten. Isidor Ugarte arrasatearrak Arabako taldearekin hartu zuen parte eta urrezko domina lortu zuen. Arrasateko Saioa karate eskolakoen artean, Erik Martin eta Alaitz Aranburuzabala hirugarren postuan sailkatu ziren. Erikek eta Alaitzek Estatuko txapelketara joateko aukera izan dezakete, baina aurrez Bilbon egingo den proba gainditu beharko dute.





# KATAIDE TXAKOLIÑA

Gabonetan dastatzeko  
txakoliñ gozoa!

**Urte Berri On!**

Egi-Haundi baserria • Musakola auzoa  
ARRASATE • Tel.: 79 16 87



# RUIZ

Lurrindegia • Opariak


Bañez Dokorea, 4 • Tel.: 79 19 94 / Part.: 77 05 74 • ARRASATE

## BAKAILOETXEA



- Bakailoa eta beroni bakailo-produktuak
- ISLANDIAko bakailoan espezializatua
- Bakailo kazoletak prestatzen dira  
(bakailo gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza ondoan) • Tel. 79 93 07



## GASTON Y DANIELA

Tapizeria • Moketak      Alfonbrak

Alfonbra eta oihalez gain, **haur eta gaztetxoendako altzari** sail berria topatuko duzu bertan!

Zatoz estreinatu dugun  
erakusketa berria ezagutzen!

Kruz gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 76 07 37



## BOLIÑETE

### OILASKO ERRETEGIA

Bertan jateko edo eramateko.

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 79 39 91

## JULIAN BEREZIARTUA (MEDIKU ZIRUJANOA)

# “Lizeriketa txarrendakoko”

**E**uskadi Irratiko entzuleok ondo ezagutuko duzue Julian. Kontsulta Irratira eraman eta gomendio ugari ematen ditu uhinetatik zehar. *Salud y cocina* liburua kaleratu berri du eta gai horren inguruko hitzaldia Monterronen eman zuela aipatzen du, gabonetako gehiegikeriei eta elikadurari buruzko galderak egін genizkion.

- Mila aldiz entzun dugu gabonetako jatorduetan gehiegikeria asko egiten dugula...

- Elkarriketa alaian egiten ditugu mahainguruak, eta konturatu orduko, jan-edanez gainezka eginda gaude. Proteina larregi hartzen dugu: haragia, arraina... eta goxokiak, nola ez. Gabonak bukatutakoan denok hartu dugu bizpahiru kilo.

- Gorputzeko zein organo kaltetzen dugu gehiegikeriekin?

- Gehienbat gibela. Gainezka egiten du eta ezin du bere lana ondo egin. Ardo basokada batzuekin nahikoa lan izaten du gibelak egun oso baterako, eta horretaz gain hiru kopa txanpan, garagardoa edo kopa batzuk gaineratzen badizkiogu, gogor zigortzen dugu. Gibelak eutsi egiten dio, baina bide horretatik, erraza da zirrosia harrapatzea.

- Ondo masteketzen dugu bazkaria?

- Ez dugu ondo txikitzen baina irtenbidea ez

da purea egitea. Zenbat eta gehiago txikitu jakiak kanpoan gero eta bitamina eta gatz gehiago galtzen dute. Purea

ahoa egin behar dugu, bazkaria txistuarekin nahastuz. Tamalez, Gipuzkoan aho txar asko dago, hagin faltan, ustelduta, txantxarrak jota... asegurantzak ez du konponketa ordaintzen baina, ez alda hobe ahoa konpontzea zapata batzuk erostea baino?

“Bixamona kentzeko, deskantsua eman urdailari, epel-epeletan egon, saldak hartu eta denbora pasatzen utzi. Ez dago besterik”

# kamomila da onena”

**- Euskal Herriko sukaldaritzaren oso astuna da?**

- Momentu honetan ez. Lehen, gosea zela-eta, janaria koipe askorekin prestatzen zen. Gaur egun, berriz, munduko sukaldaritzarik finena Euskal Herrikoa dela esan daiteke. Europako bizi-iraupen luzeena dugula esatea besterik ez dago.

**- Non dago oreka: kantitatearen kontrolatzean ala kalitatean?**

- Egunean 2.500 kaloria hartu behar ditugu bataz beste. Gutxiago hartzen badugu argaldu egiten gara eta gehiago hartuz gero, gizendu. Kaloriarik ematen dituzten hiru elikagai mota daude: azukreak, koipeak eta proteinak. Azukre eta proteinak lau kaloria ematen dituzte gramoko eta koipeak bederatzi. Elikagai ezberdinak nahastu eta 2.500 kaloriako neurria heltzen saiatu behar dugu. Horretaz aparte,

egunero bi litro eta erdi ur, bitaminak eta gatzak behar ditugu. Beharrezkoa baino gehiago hartuz gero, gizendu egingo gara.

**- Ba al dago beti baztertu beharreko elikagairen bat?**

- Toxikoak, noski. Baina hemen ez dago halakorik: zorionez, eskura ditugunak onak dira. Denetik jan behar dugu eta gainera ez dugu proportzioa boligrafo batekin kalkulatu beharrik. Gure sena gai da behar duena kontrolatzeko.

**- Lizeriketa txar baten**

**aurrean zer egin behar da?**

- Lehenengo jateari utzi. Gero ordu erdi edo ordu bete-oro kamomila infusio bat hartu, toki epelean egon eta utzi orduak pasatzen. Gure urdaila gaizki dagoen bitartean ez du janaririk onartuko eta askotan kaka-beherakoa edo goragalea izango dugu. Orduan porrusaldarekin pasatu beharko dugu eguna.

**- Azken boladan gauza asko entzuten da anorexia eta bulimia gaixotasunen inguruan...**

- Tamalez, Euskal Herrian

asko hedatu dira gaixotasunak. Anorexia jateko gogorik ez edukitzea da eta bulimia gehiegi jatea. Biak dira gaixotasun psikologikoak. Anorexiak lautik hiru hiltzen dira eta tristeena da gehienak modaren eraginez gaixotzen direla. Zaila da gaisoa garaiz harrapatzea, beti ihesi dabilako. Gezurrak esaten dizkie familiarrei, lagunei...eta gaitza oso nabarmena den arte ez dira konturatzen. Gaixotasun hauekin ez dago zer egiterik. Medikua bat eta psikologo bat behar dira gutxienez gaixoa tratatzeko eta oso gogor egin behar zaio. Hala eta guztiz ere, oso jende gutxi irteten da putzu ilunetik.

**- Bukatzeko, eta jaiak gainean ditugula, bixamona kentzeko errezetarik badago?**

- Deskantsua eman urdailari, epel-epeletan egon, saldak hartu eta denbora pasatzen utzi. Ez dago besterik. ■

**“Anorexiak lautik hiru hil egiten dira eta tristeena da gehienak modaren eraginez gaixotzen direla. Oso gutxi irteten du putzu ilunetik”**

**LOS VAQUEROS**  
 Zerkaosteta, 5 • 79 97 55  
**LOS TEJANOS**  
 Hiper-Eroski • 79 80 36  
**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**



**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON**  
**AMI OINETAKOAK**  
 oinetakoen autozerbitzua  
 Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

## ■ Nora Isasi

### EGIN EGUNKARIKO BERRIEMALEA



**J**oan den apirilaz geroztik Egin egunkariko Arrasateko berriemala dugu Nora. Oraindik kazetari-zako bosgarren maila amaitu barik, egunero albisteak bildu eta idazteko lana dela-eta Unibertsitatera ezin joanean dabil azkenaldian.

Bere laguna baldin bazara, zorionekoa zu. Zergatik? Erantzunak irakurri, eta ulertuko duzu.

- 1.- Zein da zure horoskopoa? Virgo.
- 2.- Sinestuna zara? Ez.
- 3.- Animalia bihurtzekotan? Katu.
- 4.- Zure akats bat/gauza on bat? Pazientzia falta/Lagunek esan behar.
- 5.- Zerk lotsarazten zaitu? Zenbait eskubideren ukapenak.
- 6.- Amets bat? Eskubide guztiak beteta ikustea.
- 7.- Zer kenduko zenuke mundutik? Gosea, langabezia, inbidia eta injustizia.
- 8.- Gertakizun historiko bat? Zelako historialaria, halako historia.
- 9.- Nor miresten duzu? Inor ez.
- 10.- Zeri diozu beldurra? Beldurrari.
- 11.- Zeozer garbatzen zaizu? Garbatzeak ez dauka zentzurik.
- 12.- Negar egin duzun azken aldia? Begiak erraz eta askotan umeltzen zaizkit.
- 13.- Zer falta zaio Arrasateri? Gazteok biltzeko lokal gehiago.
- 14.- Eta zuri? Denbora.
- 15.- Lanbidez aldatzekotan? Abokatu.
- 16.- Arrasateko gustoko toki bat? Udal auzoa.
- 17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Formaldu.
- 18.- Zein egunkari irakurtzen duzu? Egin dut gustokoena. Jakina, kazetaria naizenez, denak irakurri behar izaten ditut.
- 19.- Gustoko janari bat? Txitarroa laban.
- 20.- Liburu on bat? Betty Mahmoodyren "No sin mi hija".
- 21.- Filmerik onena/txarrena? En el nombre del padre/Ozoresenak.
- 22.- Musika talderik onena/txarrena? Bad Religion/Spice Girls.
- 23.- Telebistako programarik onena/txarrena? Dokumentalak/Lehiaketak.
- 24.- Egin dizuten oparirik politena? Lore sorta bat.
- 25.- Denbora libre zertan pasatzen duzu? Irakurtzen, lagunekin eta argazkiak ateratzen.
- 26.- Oporretarako toki bat? Amsterdam.
- 27.- Etxeko lanik gorrotagarriena? Garbigailua jartzea.
- 28.- Gomendio bat? Jan da lo ta potolo.
- 29.- Zerbaitegatik emango zenuke bizia? Baliteke.
- 30.- 200 milioi irabaziz gero? Lagunartean gastatu.

# J. Markiegi.

Gizonezkoen moda

Olarte, 2  
Tel.: 79 15 32

URTE BERRI ON!



A R R A S A T E



*Karmele Bitxitegian  
oparirik  
distiratsuenak.*

ZORIONAK

VRTE  
BERRI  
ON

# Gabonetako LOTERIA OPARI!

gure dendetan erosketak egitean



*Zorte on, eta  
Gabon  
Zoriontsuak!*

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Donostiako Amara auzoan pisua salgai. Eraikuntza berria, eguzki begian eta lasaia. 75 m<sup>2</sup>. 19.000.000. pta. Tel.: 45 85 09. Goizean 9etatik 11etara eta arratsaldean 19etatik 21era.

• Bizkaia etorbidean pisua salgai. Berogailua eta bi ganbara. 82 m<sup>2</sup>. Tel.: 79 22 92.

• Zumaian atikoa salgai. Guztiz berria. 70 m<sup>2</sup>. Gela guztiak kanpora ematen dute. 10,5 milioi. Tel.: 86 06 03. Gaueko 8etatik 10etara deitu.

• Juan Carlos Gerra kalean etxea salgai. Tel.: 77 14 93.

### 4. Errentan hartzeko

• Bikote gazte batek pisua behar du alokairuan. Tel.: 907 94 06 67.

• Jantzitako etxea behar dugu hiru hilebeterako, (otsaila, martxo eta apirila). Tel.: 77 08 08.

### 5. Etxe konpartituak

• Logela bat alokatzen da Arrasateko erdialdean. Tel.: 79 87 59. Tere.

• Donostian pisua osatzeko lagun bat behar dugu. Etxea erdi aldean dago. Tel.: 85 16 64.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

### 10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

• Kontzeziñon garajea salgai. Tel.: 79 23 38.

## LOKALAK

### 14. Errentan emateko

• Etxabea alokatzen da bulego, kontsulta eta abar jartzeko egokitua. Tel.: 79 18 95.

### 15. Errentan hartzeko

• Arrasaten lokal komertziala edo industrial hartuko nuke alokairuan.

Tel.: 79 99 82.

• Gazte batzuk lokal baten bila dabilta. Tel.: 79 56 14. Igor.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Neska gertu kamarero lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 77 16 32.

• Titulodun neska gertu administratzaile lanetarako. Tel.: 907 94 06 67.

• Esperientziadun andra euskalduna etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 77 04 60. Margari.

• Geriatrian diplomadun neska gaztea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 11 urteko esperientzia. Tel.: 79 61 05. Amaia.

• 35 urteko emakumea gertu sukaldetan laguntzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 05 53.

• Etxeetara arropak plantatzera joateko gertu nago. Tel.: 79 05 53.

• Umeak zaintzeko edo orduka garbiketarako gertu. Tel.: 71 53 74. Bazkal orduan edo gauetan deitu.

### 18. Eskerak

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. 77 04 70. Gauez deitu.

• Jatetxe eta barrarako kamareroa behar dugu. Tel.: 79 11 25.

• Pertsona euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 03 82.

• Hiru seme-alaba dituen Arrasateko familia batek neska euskalduna behar du. Tel.: 907 25 84 04.

• Esperientziadun neska behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 77 06 82.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tel.: 79 35 73. Gauez deitu.

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume behar da. Tel.: 79 49 92.

### 19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Titulodun neska batek DBHko 3. mailako klase partikularrak emango lituzke gaztekeraz. Tel.: 79 79 84. Arratsaldeko 3etatik aurrera.

• OHoko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 98 68.

• Esperientziadun neskek OHoko klase partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 25 09.

• Alemaniera ikasten hasi nahi baduzu, klase partikularrak emateko prest nago. Tel.: 79 82 42. Ainhitze.

• Psikologoak OHoko klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 77 17 02.

### 21. Eskerak

• Injinerutzako lehen mailako ikasleak marrazketako klase partikularrak hartu nahi ditu arratsaldeko 7etatik aurrera. Tel.: 79 73 04.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Ford Fiesta Sport Mango 1.4, SS-AP autoa salgai. 36.000 km. Berri-berria. Tel.: 79 66 58. Gauez.

• Ford Fiesta XR2 lehenengo modelokoa salgai. BI-AB. Prezioa: 175.000 pta. Tel.: 79 37 68.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Lur enziklopedia salgai. 10 tomo. 30.000 pta. Tel.: (945) 24 70 31.

• Tosai markako kerosenozko berogailua salgai. Tel.: 79 82 36 7 79 78 65. Gauez.

• Ilepaindegirako tresneria salgai. 200.000 pta. Tel.: 79 67 12.

• Karabanendako neguko abantzea salgai. Inca Alpes 250 modeloa. Bi urte ditu. Tel.: 79 66 09.

• Bigarren eskuko erremolkea salgai. Tel.: 79 86 75. Denda orduetan.

• Meto markako barazki eta haragia pisatzeko tresna salgai. Tel.: 79 08 97.

• Egoera onean dagoen disc-man-a salgai. Gabonetarako aproposa. Tel.: 79 09 92. Bazkal orduetan edo gauez.

• Marrazketako mahaia salgai. Merkea. Neurriak: 81 x 140 zm. Tel.: 79 09 92. Bazkal orduetan edo gauez.

• Baserriko kiwi ederrak salgai. Auke-ara ederra! Tel.: 79 97 84.

### 27. Erosi

• Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

### 30. Hartu

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldeta eta hozkailu bat behar du. Tel.: 79 37 68.

### 31. Galdu

• Paper garrantzitsu batzuk zituen karpeta beltz bat galdu nuen azaroaren 28an San Andres eta BM inguruan. Tel.: 970 41 74 08.

### 32. Aurkitu

• Lasagabaster jantxidendan betaurrekoak eta giltzak utzi ditueana pasa dadila bertatik jasotzera.

• Guretzetara idatzita daraman katea aurkitu dut. Tel.: 79 77 79.



# 77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deltu behar da iragarkia jartzeko.

URIBARRI ZERAMIKAK  
URTE BERRI ONA OPA DIZUE.  
ZORIONAK.



*Zeramika erakusketa eta salmenta*



Uribarri etorbidea, 22-B • ARRASATE • Tel.: 79 81 80 / Faxe: 79 81 80



# Aupa Tomasa!


**A**steartean elurra gogotik egin zuenez, Santamasetako txerria egun bat beranduago heldu zen Arrasatera.

Txerria Gesalibarko Elizagarai baserrian egongo da domekara arte. Pilar Larzanguren etxekoandrea ondo baino hobeto ari da txerria zaintzen eta une oro jaten ematen dio. "Aurtengo txerria pisuz nahiko justu dabil, ea domekarako pare bat kilo gizentzen den" esan digu Pilarrek. Tomasak, izen hori jarri diote Elizagarikoek, 290 kilo pisatzen zituen Arrasatera ekarri zute-nean. Pilarrek patata azalak eta aza orriak ematen dizkio jateko. Zelako dieta ederra!

## TXISTORRA USAINA

Santamas egunean ez da txistorra usaina falta izango. Guztira bost postu jarriko dira: Elkarri, Ekin, Goikobalu, Almeneko goi batxilergokoak eta AHTren aurkako taldeko kideak ibiliko dira txistorra eta txorixoa frijitzen.

Taldeen helburua urtean zehar egiten dituzten ekintzetarako dirua biltzea bada ere, Goikobalukoek azpimarratu dute giroa berotzen ere saiaturiko direla. Horregatik, eguerdiko ordu batean, adibidez, Goikobalukoek kantatu egingo dute euren postuan.



Tomasa deitzen da aurtengo txerria.


## ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5  
TEL.: 79 20 52  
ARRASATE

## EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA!


S a n t a m a s a k 9 7

*Beti gogoan ditugu  
Santamasak Arrasaten.  
Baserritar giroa  
kalera ekarten  
abenduarien 22an  
saia gaitezen  
Gabonak ere badatoz  
poztu bederen.*



Alkatea

  
**TABIRA**  
Dietetika eta bedardenda  
Munar, 8 • ARRASATE  
Tel.: 79 73 54

  
**KAJOI**

**JUBAR**  
**ATEAK. S.L.**

- BURDINEZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE  
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

**ARROGOI**  
**TABERNA**

*Gabonak iritsi dira, zatoz zuzana!*

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 79 06 40

**Jai Zale**  
  
**TABERNA**

Olarte, 37  
Tel.: 79 67 92

- Bokatak
- Pintxoak
- Infusio naturalak

eta...  
**SEKULAKO  
MARTXA!**



**AREITIO**  
*Kirolzalea bazara  
zatoz AREITIO KIROLAKera*

*Jai zoriontsuak eta  
Urte Berri On!*

Zarugalde, 35  
ARRASATE  
Tel.: 79 38 38

1997

GRUPO T2 TRANSPORTES



# Arrasate



Maiatzak '97  
Euskal Bizikleta



Ekainak '97  
Makiley Espedizioa (6.149 m.)



Uztailak '97  
Santiago Bidea

Hiru irudi ez dira nahikoa, NACEXek '97, urtean kirol eta kultur ekintza ezberdinak babesten izan duen partehartzea laburtzeko.

Baina geure konpromezuaren filosofia gehiago ezagutzen lagun dezake.

Dokumentu eta paketeen garraio azkarra

79 92 77

Bizkaia Etorbidea, 16 behea  
20500 Arrasate

<http://www.nacex.com>  
Email: [nacex@nacex.com](mailto:nacex@nacex.com)

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

# UGARTE

**ALTZARIAK  
DEKORAZIOA**

## AROSZTEGIA




San Juan, 1  
(Gasolindegiaren parean)  
**BERGARA**  
Telefono eta Faxa: 76 54 91

# HARRITU... TXUNDITU... LILURATU!

*ARCO IRIS DENDAn errebelatutako karrete bakoitzagatik demaseko SONY Compact Disc portatila edo JEMIS erloju zoragarria irabaz dezakezu. Saiatzea besterik ez daukazu!*

*Txartela gorde, eta 3 dituzunean argazki-albuma lortuko duzu edo zure erretratu gustokoena poster tamainara handitzeko aukera izango duzu (30X45). Zorionak eta argazki on!!*



Uribarri etorbidea, 1  
ARRASATE  
Tel.: 77 13 64




**PERCOLOR**  
Colorado Profesional

# Jai bat, kartel bi

Santamas Komisiñuaren eta Udalaren arteko tira-birak direla-eta, Santamasak iragartzeko bi kartel ditugu aurten. Ezkerrean duzuen ofiziala da, eta bestea Komisiñuarena.

Udalak ez du jakinarazi nork egin duen eurek eskatutako kartela, eta komisiñuarena beti bezala Antton Olariaga ilustratzaileak egin du. Olariagak azaldu bezala, *Guggenheimitis* arekin lotu nahi izan du aurtengo kartela, eta horregatik, txerria olentzeroz jantzi eta museoarekin lotu du. Ilustratzailearen berbetan, oso gustora egiten du Santamasetako kartela eta poztu egin da azken 20 urteotan egin dituen kartelak Komisiñuek erakusgai jarriko dituela jakitean. "Oso polita izango da txerria zelan zahartu den ikustea" esan du Olariagak.



Udalak ateratako kartela.



Santamas Komisiñuaren kartela.

## DISCO-BAR



**Disco-Bar GURELEKuk**  
Santamas egun zoriontsua  
opa dizu

Zarugalde, 17 beheca • ARRASATE  
Tel.: 79 20 29



## IPUIN TAILERRA

Titulu eskuragarriak

- Nire abentura zirkoan
- Egun bat Errege Magoekin
- Aladino eta biok
- Nire abentura olinpikoa
- Egun bat zoonan
- Nire bidaia denboran zehar
- Pocahontas
- Umetxoaren ipuina
- Bugs Bunny basoaren salbatzile
- Nire urtebetetzea azokan
- Lehoi Erregea
- Maitagarrien herrialdea
- Eskiari buruzko nire liburua
- Lehenengo Jaunartzea

Etxera eramango dizugu!

Leintzibar, 2 • ARRASATE  
Tel: 79 47 54  
E-mail: melices@arrakis.es



## SUKALDE ETA DEKORAZIO PROIEKTUAK

Juanita Arana

Mondragones kalea, 9 (Azoka ondoan)  
ARRASATE • Tel./Faxa: 77 07 50


*Kalitatea beti!*



SUKALDEAK eta ELEKTRATRESNAK

# Miele

ALTZARITAN ESKLUSIBITATEA BAILARAN



## ILEAPAINDEGIA

Zurekin izan da urte osoan zehar. Eskerrik asko zure ilea gure esku uztearren. ZIRT-ZARTEko lantalde osoak urte berri ona opa dizuegu.

Gabon zaharrerako dotore jartzea gura baduzu, 77 09 44 zenbakira deitu eta datorren urtean primeran sentituko zara.

Gorbea kalea 2.zkia,  
(Eroski handiaren parean)  
ARETXABAETA • Tel.: 77 09 44

# Hogeitabost gaztai probatzeko aukera izango da azoka plazan

laz, Santamasetako gazta lehiaketan lehen saria eskuratu zuen Joxe Iturbek, baina ez da hau jaso duen sari bakarra; Gernikan, Bergaran eta Elorrixon ere saritu dute bere gazta. Aurten Euskal Herriko hainbat lekutik etorriko diren artzaiekin eta beste hiru arrasatearrekin lehiatu beharko du. Aurtengoa dastatu ahal izateko astelehenera arte itxaron beharko dugu, baina gosea egiteko, horra aperitibo txikia.



Joxe Iturbe, iazko gazta lehiaketako irabazlea.

**- Gaztai mota bera egiten duzu beti?**

- Egin, berdin egiten ditut baina gazta guztiak ez dira beti berdinak irtetzen. Eguraldiak badu eraginik; trumoi eta laino egunak, adibidez, ez dira batere onak.

**- Noiz egiten da gaztaia?**

- San Jose inguruan hasi eta San Pedrotan bukatzen dut gutxi gora-behera. Arkumeak jaiotzen direnean esnea batu,

sutondoan ipini eta gatzagia botatzen zaio.

**- Gatzagia erosi egiten duzu?**

- Normalean naturala erabiltzen dut, nahiz eta kimikoa ere noizean behin erabili. Bildotsek esnearen hondarrak izaten dituzte bularrean, "pantzie" esaten zaiona. Bildotsei

pantzie kendu eta sikatzen jartzen dut. Hori da gatzagia. Oso usain fuertea hartzen du eta esnetan sartu orduko gogortu egiten da. Denbora gutxi utzi behar da, ez da komeni-eta segituan gogortzea.

**- Esnea gogortu eta gero, zer?**

- Orduan apurtu egin behar da. Dena xehe-xehe eginda utzi, mamia behean gelditu dadin. Gero eskuekin atera eta moldeetan sartzen da. Prentsatu, fajak jarri gaztaiak leuna irteteko, eta 24 orduan gatz-uretan sartu. Gero, gaztaiak leku freskoan ipini eta

egunero buelta eman behar zaie. Prozesu osoak hiru bat hilabete irauten du.

**- Epaimahaikideek zer hartzen dute kontuan gaztaia baloratzeko orduan?**

- Lehenengo kanpoko itxura. Gero zaporea eta jakina, garrantzitsua da oso zulo gutxiko gatzak egitea.

**- Gaztaizalea zara?**

- Egia esan ez naiz gaztaizalea. Badaukat artzaina den lagun bat egunero gaztaia jaten duena eta beti esaten diot: "Ardi artean jaiota, zelan jan leike hainbeste gaztai!".

## Santamas Gaztai Lehiaketa

**Partaideak:** 25 (Euskal Herri osotik etorritakoak)

**Arrasateko partaideak:** 4

**Lekua:** azokan, goizeko 10etatik aurrera

**Sariak:** 1. saria: 30.000 pta; 2. saria: 20.000 pta.

Zubizameta



GALERIA 44

Gabonetako oparirik onenak

Zerkaosteta, 8 Tel.: 79 90 50 • ARRASATE

TITARE

Lentzeria  
Kortsetegia  
Bainujantziak

Jai  
zoriontsuak  
izan!



Olarte kalea, 6 • Tel.: 77 10 16 • ARRASATE

# Harrijasotzaile eta aizkolariak eguerdian Zaldibarren


Harrijasotzaile eta aizkolariak ez dira falta izango Santamas jaietan. Egurdiko 12.30etatik aurrera, Zaldibar pilotalekua herri kirolen topaleku bihurtuko da. Aizkolarien artean lau izen handi etorriko dira: Larretxea, Arrospide, Olasagasti eta Nazabal. Egin beharreko lana: batetik 12 korte 54-60 ontza bitartekoak eta bestetik 8 korte trontzan. Aizkolarien munduan kortea enbor bakoitzari deitzen zaio. Enborrak beti bezala, pagoarenak izango dira. Iaz aizkolarien artean txapeliduna Larretxea izan zen eta aurten ere irabazle izateko irrikan etorriko da Arrasatera.

Altueran lan egiten duten aizkolarien ikuskizuna ere izango da. Murgeza 6 metroko altueran bi enbor mozten saiatuko da. Harrijasotzaileetan Migeltxo Saralegi eta Zelai arituko dira nor baino nor. Saralegik 200, 250 eta 300 kiloko kuadroak igoko ditu eta 100 kiloko bola.

Zelaik, berriz, 100 kiloko zilindro zaharra, 125 kiloko kubika eta 150 kiloko erretangularra.

Partehartzea kontuan

hartuta, ikuskizuna ziurtatuta dago, beraz, herri kirol zaleek zita garrantzitsua izango dute Zaldibar pilotalekuan Santamas egunean.




Migeltxo Saralegik harria izango du lagun Santamas egunean.

## Kuadrilak takarraran Santamasetan

Arrasate Kirolak Atletiko Taldeak antolatuta, XX. kuadrilen arteko santamas krosa korrituko da domekan, hilak 21, Arrasaten. Krosa egurdiko 12etan hasiko da eta ize-na aurrez eman behar da herriko plazan. 14 urte baino gehiago duten gizon eta emakumeendako dago antolatuta krosa. Zaldibar txapelketako taldeek ere parte hartu ahal izango dute eta hauentzat sailkapen berezia egongo da. Kuadrilen arteko krosa hasi baino lehen, gazteentzat lasterketak izango da Herriko plazan.

## Pilotako finalak

Santamas pilota txapelketako finalak jokatuko dira Iturripen zapatuan. Goizeko 10.30etatik aurrera, aurrebenjamin, benjamin infantil, alebin eta jubenilek neurtuko dituzte indarrak. Ondoren Iturripen sari banaketa egingo da.



**SABURDI**  
URDAITEGIA • HARATEGIA

**ONDO PASATU SANTAMAS EGUNA ETA URTE BERRI ON!**

Sebero Altube, 7 • ARRASATE • Tel.: 79 86 15





*Arrasatear  
guztioi  
Santamas  
eta Gabon jai  
zoriontsuak  
opa  
dizkizuegu!*

Erdiko Kale, 14 • Tel.: 79 46 94 • ARRASATE



**ZUZEN-ZUZENEAN  
FABRIKATIK  
ZURE ETXERA**



Kataide poligonoa • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZ HOBETUZ GOAZ

ALTZARIAK: Zerkaosteta, 2 • Tel.: 79 30 10  
JANTZIDENDA: Zerkaosteta, 1 • Tel.: 79 13 55  
UMEEN JANTZIDENDA: Zerkaosteta, 7 • Tel.: 79 86 14

*Zorionak eta  
Urte Berri On  
Arrasate!*

# Ganaduek, astoek, zaldiek eta ardiek beteko dute Lau Bide Plaza

Ganadu feria da aurtengo Santamasetako nobedade handienetarikoa. Lau urte eta gero, arraza eta itxura desberdineko ganaduek beteko dute Lau bide plaza goizeko 10etatik aurrera.

Beste edizio batzutan ganadu feria lehiaketa moduan aurkeztu bada ere, aurtengoa erakusketa izango da. Juan Ramon Ibarbia Gipuzkoako Foru Aldundiko abeltzaintza sailko arduradunaren esanetan, Deba Garaian ez dago lehiaketa egiteko bezain beste baserri eta ganadu, horregatik, aurtengoa erakusketa egitea erabaki dute.

Goi mailako erakusketa izango da, arraza bakoitzeko ganadu onenentzako aukera dituzte eta Arrasatera ekartzeko. Astelehenean egingo den erakusketarekin antolatzaileek hiru helburu lortu nahi dituzte. Batetik, ganaduan eman den hobekuntza genetiko eta aurrepausoa erakutsi. Bestetik, aurkeztuko diren buruak baserri-



Lau Bide plazan abereak izango dira ikusgai.

rendako eredu izatea, eta azkenik, feria baserriaren topaleku bihurtzea. Hala ere, gauza guztien gainera gero eta baserri eta baserriaren gutxiago dagoenez, elkarrekin egoteko egun berezia izan dadila gura da.

Gaur egun baserri kopurua nabarmen jeitsi bada ere, adituen berbetan ganaduraren kalitatea igo egin da.

Horretan eragin zuzena izan du hobekuntza genetikoak eta egin den saneamendu kanpainak.

Arrasatera 5 arrazako ganadua ekarriko da. Guztira, 12 baserriko 45 buru ikusgai izango dira.

■ **Frisoiak-Esnerako erabiliak**  
Oñatiko 2 baserriko 11 buru.

■ **Blondak - Haragitarako**  
Elgoibar, Itziar eta Bergarako 3 baserrietatik 9 buru.

■ **Limusinak - Haragitarako**  
Tolosa eta Beizamako bi baserriko 6 buru. Limusina arraza hedatuena da Euskal Herrian eta baita estatuan ere. Urtean zehar estatuko txapelketak egiten dira eta Arrasatera etorriko diren 6 buruetatik 4 irabazleak izan dira estatuko txapelketan.

■ **Pirenaika - Haragitarako**  
Bergara, Elgoibar eta Aretxabaletako baserriko 15 buru.

■ **Suitzarrak - mistoak: haragitarako eta esnerako**  
Elgoibarko baserri batek 4 buru.

Ganaduez gain, moxalak, behorrak, zaldiak, astoak, ahuntzak, akerrak, ahariak eta ardiak egongo dira ikusgai, poni eta pottoekin batera.

**SANTAMAS EGUNA  
ONDO PASATZEKO...**



Iturriotz, 12 • ARRASATE


Biteri, 13  
Tel.: 79 21 71  
ARRASATE

Barrenkale, 9  
Tel.: 76 22 86  
BERGARA

Santamas egunean kale gorritik zuzen-zuzenean

## Arrasate Irratian programazio berezia gabonetan

Abenduak 22, astelehena	Abenduak 23, asteartea	Abenduak 24, asteazkena	Abenduak 26, ostirala
10:00-13:00	9:00- 11:00 / 14:00-16:00	9:00-11:00 / 14:00-16:00	9:00 - 11:00
<b>SANTAMASAK 97</b> Aitziber Aranburuzabalak eta Garikoitz Kortazarrek zortzi laguneko lantaldea gidatuko dute estudioetatik. Estudioetan, jai egitarauko protagonista nagusiak izango dira: bertso jaialdiko pasarteak, txarangako kideak eta egunean bertan omenduko duten Gaizka Barandiaran arrasatearra, besteak beste. Kaletik, zuzenean eman go dute hango eta hemengo berri: ikuskizunak, lehiaketa eta saridunak, herri kirolen jaialdia eta unean uneko giroaren zuzeneko kontaketa.	<b>URTEARI ERREPASOA</b> Euskal Herrian eta Arrasaten urtean zehar izan diren notizia eta gertakari nagusiei errepasoa emango diete Gari Kortazar eta Aitziber Aranburuzabalak.	<b>URTEKO PROGRAMAZIOAREN ERREPASOA</b> Arrasate Irratiak 97an eskaini dituen programa eta edukiei gainbegirada. Urteko elkarrizketa eta une bereziak gogoratu eta egungo programa guztiak aurkeztuko dituzte bi orduko desfilean.	<b>GABONETAKO SAIO BEREZIA</b> Saio honek errege eguna bitartean jarraituko du antean. Bertan, besteak beste, umeentzako tartea, lehiaketa, elkarrizketa, eta Zoroklasikoaren laguntzaz, KlasiKola musika klasikoaren txokoa bilduko dira.



# ARIANE

Barrutik dotore  
janzteko ARIANEN  
duzu aukera  
zabalena

*Gabon  
zoriontsuak  
eta  
Urte berri on!*

**Erdiko Kale, 14  
ARRASATE  
Tel.: 79 27 33**

Gabon aurreko aste berezia ATBn


# Santamasak eta Txoronpio pantailako erregeak

Urtero bezala, Santamas eguneko jai giroari gertuko jarraipena egingo dio ATBk. Kamarak kalean egongo dira egun osoan, hango eta hemengo berri jasotzen: erakusketak ezberdinak, lehiaketetako irabazleak, sari banaketak, taloa eta txistorra, txerria, eguneko protagonistak eta, nola ez, herritarren iritziak.

Aurten, gainera, Aretxabaletako Bazter-Alde jate-txeko Sonia Berezibar sukaldariak gabonetarako postre goxoa nola prestatu erakutsiko du: intxaur turroia intxaur saltsarekin. Saioaren grabaketa jabetxean bertan antolatutako platoan egin da, eta Santamasak 97 programaren barruan eskainiko du ATBk.

Aurtengo Santamasetako programa berezia Unai Loidi kazetari atxabaltarrak gidatuko du. Unai aste bukaeretan egiten du lan ATBn.

Aurretik, Sanjuanetan bete zituen aurkezle lanak telebistan.



Unai Loidik aurkeztuko du Santamasetako programa berezia.

## Programazioa

Abenduak 20, larunbata

13:30

**KUKARATXA MOTEL**

14:15

**ASTEBETE**

14.45

**LOTSA BARIK**

Abenduak 22, astelehena

20:00/21:00

**SANTAMASAK 97**

Abenduak 23, asteartea

13:30

**SANTAMASAK 97**

20:00/20:30/21:00

**BERRIAK**

21:30

**SANTAMASAK 97**

Abenduak 24, asteazkena

13:30

**TXORONPIO  
SANTAMASAK 97**

Urte Berri On!

# BENGOT

LURRINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK

Zerkaosteta, 5  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 28 85

## ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

### ONDO PASAU SANTAMAS EGUNA!

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

*Elena*

**Jantzidenda**

**TAILA HANDIETAN  
ESPEZIALIZATUAK  
(48-64)**

Jai zoriontsuak!

Bizkaia etorbidea, 1  
ARRASATE  
Tel.: 77 14 24

**D**uela urte batzuk ere giro ederrean ospatzen ziren

Santamasak. Goiz partean kalera irten, Sebero Altube plazan egoten zen ferixa ikusi, eta arratsaldean Garibai kalera joaten zen jendea trikitilarietako alaitutako erromerian dantzan egitera. Gau partean, berriz, agarrauak dantzatzen ziren *Berdury Dancing* delakoan eta dantzan egiten zutenek bakarrik ordaindu behar izaten zuten. Begira zeudenez, berriz, ez.

Hain egun alaiak gogoratzeko, lagun hauek goiko argazkia atera zuten 1932an. Ezkerretik hasita: Juanito Aspe, Inaxio Zubillaga, Juan Mari Otaduy, Alejandro Uribetxebarria, Agustin Garcia eta Julio Galarta. Eserita dagoenaren izena, berriz, ezin gogoratu!

Urtea: 1932.

Informazioa eta argazkia: Julio Galarta.



Torrauzo, 9  
Tel.: 78 19 56 / 78 32 90  
OÑATI

**Etxe Aundi**  
Hotela\*\*  Jatetxea

**GABONETAKO ORDUTEGIA**  
Abenduaren 24, 25 eta 28tik  
urtarrilaren 3a bitartean  
itxita egongo da.  
Barkatu eragozpenak.

**Oporretan, abenduaren 26, 27 eta 28an**  
**ZABALIK izango dugu**  
**EGUBERRI ON!**

3 pieza eraman  
baina 2 ordaindu

**Opari Distiratsua!**



**Ventre Plat  
Hip Confort**  
panty-a eta


**Satin Up**  
bularretakoa  
erosiz gero,  
dagokion  
kulerotxoa  
opari!

*Casa Ceciaga*

Maalako Errabala,3  
ARRASATE  
Tel•Faxa: 791262

*Jai zoriontsuak  
opa dizkizugu*

Orain beste bi  
koloretan:



Txokolatea

Urdina

**DIM**

110 zaldiko potentzia duen TDI motor berria.

Ondo ibili eta Urte berri on.

Zorionak eta eskerrik asko gurekin egoteagatik.



*Galaxy*

*Etorri eta proba ezazu Mugarrin.*

*Zazpi pertsonendako prestatua, familia osoak  
Gabonak primeran pasatzeko.*

**MUGARRI**

Araba etorbidea • ARRASATE • Tel.: 79 07 44 / 54 • Faxe: 79 62 54

